



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA  
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA  
MARTIN BARUA PICAZA nº 27, 4<sup>a</sup> PTA 48003 BILBAO  
Tfno.: 94 443.17 34 Fax: 94 444 35 62  
[www.bmf-fvm.org](http://www.bmf-fvm.org)  
<https://www.facebook.com/pages/Bmf-Fvm/597553177057267>

## AKTA

### **BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOKO BATZAR OROKOR ARRUNTA ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA DE BMF**

Bilbon, 2018ko azaroaren 22an, 19:30ak direnean eta bigarren deialdian, BMFko Ohiko Batzar Orokorra eratu da.

Victor Manuel Vivar Federazioko presidenteak zuzentzen du Batzarra eta idazkari lanetan, federazioan kargu bera duen Ainara Aparicio dago. Aldi berean, Ricardo Hernani, Dioni Pérez, Garbiñe Okerantza, Fernando Pérez eta Ana Sesumaga batzarreko kideak ere bertan dira.

#### **BERTARATUTAKOAK:**

#### **ORDEZKARITZA ZUZENA EDO AKREDITAZIOA DUTEN KLUBAK:**

Bilbao Alpino C, Gallarreta, Arroletza, Baskonia M.T, Erdella M.T, Gallarraga, Ganguren M.T, Ganzabal M.T, Goiko Mendi, Alpino Tabira M.T, Turista Barakaldo, Artarrai G.M, Ganerantz M.T, Sestao Alpino Club, Encartaciones, Goi Gain M.T, Deportivo Bilbao, Egunsentia, Txarlazo M.T, Gailurra M.T, Lezama Gailurra M.T, Sollube 707 Bermeo MT, Cocloturistas de Euskadi C. La Rioja, Beraskola M.T, Gorlizko M.K.E, Austarri M.T eta Untza M.T.

#### **LEGEGINZALDI HONETARAKO BMF-KO HAUTESKUNDE BATZORDEAK ESKATUTAKO ORDEZKARITZA OROKORRA AURKEZTU EZ DUTEN KLUBAK BAINA PUNTUALKI BATZAR HONETARAKO ORDEZKATUAK IZAN DIRENAK:**

Juventus S. D, Etorkizuna M.T, Sociedad Montañera Bilbao, Encartaciones eta Itxartu M.T

#### **KIROLARIAK:**

Domingo Garcia Valerio, Victor Manuel Vivar Moreno, Txaro Iglesias Lareo, Ricardo Hernani Perez eta Ainara Aparicio Arronategi.

Víctorrek, BMFko presidente bezala, ongi etorria eta eskerrak ematen dizkie bertaratutakoei. Idazkariak Batzarrera joan direnen zenbaketa burutzen du: boto eskubidearekin 32 klub (82 boto), 5 kirolarien ordezkari (5 boto), ez dago teknikoen ordezkaririk (0 boto). Orotara 37 kide bertaratu dira 87 botorekin.

#### **BATZARRAREN ERAKETA:**

Aurreko datuak ikusirik, Presidenteak batzarraren eraketa ontzat ematen du, Federazioko estatutuen 20. artikulua jarraituta.

Batzar Orokor hau, Bizkaiko Mendizale Federazioaren Presidenteak deitua izan dela jakinarazten du idazkariak, BMFko estatutuetako 18. artikuluak adierazten dituen epearen barruan, eta bertan jorratuko diren gaiak, deialdiko gai zerrendan sartuz. Argi uzten dute Batzar honen lehendabiziko helburua 2018an zehar egin diren ekintzen berri jakinaraztea dela.

BMFko aurreko Batzar Orokoretan erabilitako eskema jarraituz, ordezkari ofizialen laguntzaile bezala etorri diren pertsonei bilerako sarrera baimendu zaie (klub bakoitzetik laguntzaile bat), baina ez dute boto eskubiderik izango. Halaber, boto eskubiderik ez duten zuzendaritzako hurrengo kideak ere bertan dira: Dioni Pérez, Fernando Perez y Garbiñe Okerantza.

Puntu honetan Domingo Garcia Valeriok hartzen du hitza eta Ander Gomez Blancogatik galdetzen du, EBAM-eko arduradunari utzi ziona. Ander EBAMeko zuzendaria izateari utzi diola azaltzen zaio, eta ez diola batzarreko bere plazari uko egin.

BMFko Estatutuen 19. Artikuluak ahalbidetzen duen bezala, gai ezberdinak sartzeko eskaerarik egon ez denez, deialdian batutako gai zerrenda garatzen da.

#### **LEHENDABIZIKO PUNTUA: 2018 MARTXOAREN 7KO AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA HORRELA IKUSTEN BADA.**

Akta honen edukia deialdiarekin batera batzarreko kide guztiei bidalia izan dela jakinazten da.

Botoen zenbaketari dagokionez, Domingo Garcia Valeriok hauen batuketa okerra dela adierazten du. Berriz kontatuko direla adierazten zaio. Hauen batuketa egin ostean, 33 klub bertaratu zirela ikusten da eta bozka kopurua 83koa izan zela eta ez 88koa aktan adierazi bezala. Bestalde, gainontzeko botoak, amaierakoak barne, zuzena izan zen.

Beste puntualizaziorik ez dagoenez eta arrazoi praktikoengatik, honen irakurketa ez burutzea erabakitzentz da eta onarpenerako bozketara pasatzen da, beti ere horrela adosten bada.

Jarraian 2018ko martxoaren 3ko akta bozkatzen da eta aho batez onartzen dute bertaratutakoek.

#### **BIGARREN PUNTUA: ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDE BERRIAREN AURKEZPENA ETA ONARPENA:**

Zigor Egia aurkezten da Batzarraren aurrean. Zigor segurtasun eta ingurugiro arloko batzarkidea izango da behin batzarrak bere kargua onartu eta gero, estatutuen 28. artikulua jarraituz. Bere aurkezpena eta gero bozketa burutzen da, aho batez BMF-ko Zuzendaritza Batzordeko kide izatea onartuz.

#### **HIRUGARREN PUNTUA: KLUB BERRIEN SARTZE KUOTA**

Klub berrien alta eta bajen kuotari dagokionez, pasa den urteko berdina izaten jarraituko duela gogorarazten zaio batzarrari. Kalkulua honako formula erabilita ateratzen da: (BMF+EMF+Pyrenaica)\*15, emaitza honakoa izanik (6,90+6,90+8,36)\*15=22.16\*15=332.40€.

#### **LAUGARREN PUNTUA: KLUB BERRIEN ALTA KOMUNIKAZIOA**

Alta eta bajen arautegia jarraituz, gaur batzarraren aurrean hiru mendi kluben aurkezpena burutuko dela jakinazten dio Ainarak Batzarrari. Klub hauen BMF-ko kide izateko betebehar legal guztiak betetzen dituzte.

Puntu honetan, Domingo Garcia Valeriok hitza hartzen du berriz ere, egungo zuzendaritzak informaziorako bere eskubidea urratu duela "salatzeko", izan ere klub horien izenak batzarreko deialdian sartzeko email bidez egindako eskaerari ez diotela erantzun esanez. Zuzendaritzak email horietako biri erantzuna eman diela erantzuten dio eta azken emailari ez diotela erantzun, izan ere berak nahi duen erantzuna jaso ez duelako eta aurreko bi emailetan bertan azaldutakoari erantzuna eman diela ulertzan bait dute. Era berean, zuzendaritzak BMFko langile baten whassap pertsonala erabili duela esaten dio, idazkariari eta zuzendaritzari emaila ahalik eta arinen elearazteko.

Zuzendaritzko kide baten helbide elektroniko personal bat erabili duela ere adierazten zaio eta gertaera hau ez errepikatzeko eskatzen zaio. Aktan emailak sartzea eskatzen zaio eta berak baiezkoarekin erantzuten du, beti ere datu pertsonalak agertzen ez badira. Zuzendaritzak ez ditu datu horiek sartuko baina emailak bere osotasunean sartuko ditu.

#### **DOMINGOREN LEHENDABIZIKO EMAILA:**

**Asunto:** CONVOCATORIA ASAMBLEA

**Fecha:** Wed, 7 Nov 2018 09:07:17 +0100

**De:** Txomin G. V. <XXXXXXXXXX>

**Para:** 'Federacion Vizcaina de Montaña' <[info@bmf-fvm.org](mailto:info@bmf-fvm.org)>

*A LA ATENCIÓN DE LA SECRETARIA DE LA BMF*

Soy Txomin G. V., y pertenezco a la Asamblea de la BMF y como tal he recibido la comunicación de la Federación mediante la que se convoca a asamblea ordinaria para el próximo día 22 de noviembre. Examinados los puntos del Orden del Día, me refiero al señalado como punto 4 "Propuesta y aprobación de altas de nuevos clubes". En relación con el mismo, le comunico en primer lugar que no es correcta la forma en que está redactado. En el Reglamento Interno sobre Altas y Bajas de Clubes presentado en la Asamblea General celebrada el 17 de marzo de 2016, en su artículo 3.b), se indica expresamente : "Una vez comprobado el cumplimiento de estos requisitos, y como paso previo a su admisión formal, la Junta Directiva de BMF lo comunicará a la Asamblea General en reunión ordinaria, pasando en ese momento a oficializarse su incorporación a la BMF". De acuerdo con este texto, no procede ni propuesta ni aprobación de los clubes en la Asamblea, sino una "comunicación" que constituye un paso formal previo a su admisión administrativa oficial, pero que no requiere de aprobación por parte de la Asamblea. Es decir, no tiene que plantearse en la reunión ningún tipo de votación, como ha de interpretar por el texto de la convocatoria.

Por el contrario, lo que sí se requiere es que se informe a la Asamblea, con carácter previo a la celebración de la reunión, de los nombres de los Clubes cuya admisión se oficializa en la misma. Efectivamente, la resolución del Comité Vasco de Justicia Deportiva del año 2014 dejaba claro que el cumplimiento por parte de los nuevos clubes de los requisitos legales y la presentación posterior a la Federación de la documentación relacionada requerida, eran suficientes para no poder rechazar su incorporación a la BMF. Por otra parte, la comunicación a la Asamblea antes comentada, ultima el proceso de la oficialización de su incorporación. Sin embargo, lo que sí puede esperarse en la Asamblea es la aportación por parte de cualquier asambleísta de circunstancias o hechos que sobre los clubes que van a incorporarse a la Federación pudieran ser relevantes respecto a sus actividades conocidas por otros clubes, la existencia de posibles conflictos activos con otros colectivos de actividad, etc. (esto ya ha ocurrido en otras Asambleas). En la mayor parte de los casos, tales datos pudieran no ser suficientes para anular o posponer la incorporación de un club en la BMF, pero sí para identificar la necesidad de realizar su seguimiento. Para que esta posible acción pueda plantearse en la asamblea es necesario que por parte de los asambleístas se conozca con carácter previo a la reunión el nombre de los clubes cuya incorporación se comunica.

Por lo que antecede, le solicito que subsanen esta omisión y complementen la convocatoria de la asamblea en el referido punto, facilitando con suficiente antelación a su celebración los nombres de los Clubes cuya incorporación se oficializa.

Atentamente,  
DOMINGO G.V.  
D.N.I. xxxxxxxxxx

#### RESPUESTA DE LA BMF:

RE: FWD: CONVOCATORIA ASAMBLEA

De [secretaria@bmf-fvm.org](mailto:secretaria@bmf-fvm.org)

Destinatario xxxxxxxxxxxxxxxxxxxx

Fecha 2018-11-07 18:24

Buenas tardes Txomin:

Hemos procedido a corregir la convocatoria de la asamblea, eliminando la palabra "aprobación", sin embargo no hemos procedido a incorporar los nombres de los clubes, ya que la federación ya ha comprobado que reúnan todos los requisitos. Al ser así, la asamblea no les puede negar el acceso, y conocer de antemano los nombres de los mismos no puede cambiar este hecho, tal y como tu mismo explicas en el email. Ese día los clubes se presentaran, expondrán sus proyectos y los asambleístas les

*harán las preguntas que crean oportunas como se ha hecho en otras ocasiones.*  
Un cordial saludo, Ainara.

**DOMINGOREN BIGARREN EMAILA:**

**Asunto:**ALTA DE NUEVOS CLUBES  
**Fecha:**Thu, 8 Nov 2018 23:22:24 +0100  
**De:**Txomin G. V.<[xxxxxxxxxxxxxx](#)>  
**Para:**'Federacion Vizcaina de Montaña' <[info@bmf-fvm.org](mailto:info@bmf-fvm.org)>

A LA ATENCIÓN DEL PRESIDENTE DE LA BMF

*Soy Txomin G.V., y pertenezco a la Asamblea de la BMF y como tal he recibido la comunicación de la Federación mediante la que se convoca a asamblea ordinaria para el próximo día 22 de noviembre. Como sabes, ayer remití a la Secretaría de la Junta Directiva de la BMF un correo mediante el que identificada un error en la redacción del punto del Orden del Día referido al alta de nuevos Clubes, que ha provocado una modificación de la convocatoria de la asamblea, que ha sido remitida ayer mismo a los asambleístas.*

*Sin embargo, el segundo tema que planteaba, que era que se incluyera en dicha convocatoria el nombre de los clubes cuyo alta se va a comunicar a la Asamblea el próximo día 22, no ha sido atendido, habiendo recibido de la Secretaría de la Federación una explicación que no me resulta satisfactoria.*

*Sin volver a insistir ahora en la necesidad o conveniencia de conocer antes de la celebración de la asamblea los datos solicitados, que ya se explicaban en mi anterior correo dirigido a la Secretaría de la Federación (desde luego que podría plantearse la posibilidad de posponer la incorporación de un club en la BMF, aun cuando cumpliera todos los requisitos formales), por la presente te*

*SOLICITO oficialmente que la BMF me facilite el nombre de los clubes cuya alta se va a comunicar en la Asamblea General Ordinaria del próximo 22 de noviembre. Requiero que dicha información se me remita por esta misma vía con la antelación suficiente antes de la celebración de la mencionada asamblea. Esta petición la realizo haciendo uso de mi derecho de información como asambleísta de BMF, sobre un tema que es objeto de exposición y tratamiento en el Orden del día de la Asamblea, que además se refiere a datos no relevantes que no perjudican los intereses de la Federación, y que ya están decididos por la Junta Directiva (tal y como me informaba ayer la Secretaría de BMF).*

*Quedo a la espera de dicha información. Atentamente,*  
*DOMINGO G. V.*  
*D.N.I. xxxxxxxxxx*

**ERANTZUN BAT ESKATZEN DOMINGOK BIDALITAKO BESTE EMAIL BAT:**

**Asunto:**ALTA DE NUEVOS CLUBES  
**Fecha:**Wed, 14 Nov 2018 15:26:54 +0100  
**De:**Txomin G.V.<[xxxxxxxxxxxxxx](#)>  
**Para:**'Federacion Vizcaina de Montaña' <[info@bmf-fvm.org](mailto:info@bmf-fvm.org)>

A LA ATENCIÓN DEL PRESIDENTE Y DE LA SECRETARIA DE LA BMF

*Os confirmo el correo electrónico que remití el pasado día 8 de los corrientes, al que no he recibido respuesta.*

*Solicito contestación a la brevedad posible.*

**BMF-KO BIGARREN ERANTZUNA:**

RE: [DIRECTIVA] ALTA DE NUEVOS CLUBES

De Federacion Vizcaina de Montaña

Remitente Directiva

Destinatario Txomin G. V.o

Fecha 2018-11-14 21:05

*Estimado Domingo:*

*En primer lugar, pedirte disculpas por la tardanza en responderte, pero estabamos realizando la consulta sobre el tema que nos ocupa con el asesor legal de asfedebi, quien nos ha confirmado que no es necesario notificar en la convocatoria los nombres de los nuevos clubes.*

*Sin otro particular, recibe un cordial saludo,*

*VICTOR MANUEL VIVAR MORENO (PRESIDENTE)*

*AINARA APARICIO ARRONATEGI (SECRETARIA)*

DOMINGOREN HIRUGARREN EMAILA:

----- Mensaje reenviado -----

**Asunto:**ALTA DE NUEVOS CLUBES

**Fecha:**Thu, 15 Nov 2018 08:51:07 +0100

**De:**Txomin G. V.<XXXXXXXXXX>

**Para:**'Federacion Vizcaina de Montaña' <[info@bmf-fvm.org](mailto:info@bmf-fvm.org)>

*A LA ATENCIÓN DEL PRESIDENTE Y DE LA SECRETARIA DE LA BMF*

*ESTIMADOS VICTOR Y AINARA :*

*Perdonad, pero a la vista de vuestro correo de ayer creo que no habéis expuesto correctamente la pregunta al asesor legal de ASBEDEBI. El tema está planteado a través de dos enfoques diferentes :*

*En la primera comunicación que remití a la Secretaría de la BMF solicitaba que en la convocatoria oficial a remitir a los Asambleístas se incluyeran los nombres de los clubes cuya alta en la Federación se presentan a la Asamblea. Por la respuesta que recibo de vosotros, plasmada en la contestación que me pasasteis ayer, señaláis que el asesor legal "ha confirmado que no es necesario notificar en la convocatoria los nombres de los nuevos clubes". Lo que me hace suponer que éste ha sido el único tema planteado al mencionado asesor legal (aunque también podría matizarse entre necesidad y conveniencia).*

*Sin embargo, la solicitud que os hacía posteriormente, que es la que procede que sea respondida oficialmente ahora por parte del Presidente y la Secretaría de la Federación, ya no está relacionada directamente con la forma de la convocatoria, sino que se refiere a la petición que he realizado yo el pasado día 8 de noviembre y he ratificado con fecha 14 de noviembre, con un planteamiento diferente, para solicitar el nombre de los clubes cuya alta va a comunicarse en la Asamblea. Esta solicitud la realicé a título personal :*

- *Como miembro perteneciente a la Asamblea General de la Federación.*
- *Haciendo uso de mi derecho a la información por dicho cargo*
- *Por referirse a una informaciones relacionada directamente con un punto del Orden del Día de la convocatoria de la Asamblea*
- *Porque la petición se refiere a datos no relevantes, que no perjudican en ningún caso los intereses de la Federación*
- *Sobre datos que se van a presentar a la Asamblea que ya están decididos con carácter previo por parte de la Junta Directiva de la Federación*

- Porque según la información que me habéis trasladado en un correo anterior, el tema objeto de presentación a la Asamblea va a plantear la asistencia a la reunión de personas ajenas a su composición, sin haberse transmitido con carácter previo ningún tipo de notificación a la Asamblea para justificar su presencia, resultando totalmente desconocida para los asambleístas.

Ruego, por tanto, vuestra respuesta en los términos solicitados, a la brevedad posible.

Un cordial saludo,

DOMINGO G. V.

ASAMBLEISTA DE BM

Batzarrari hiru ordezkariak kanpoan daudela jakinarazten zaio, banan banan sartuko direla eta beraien intentzio, jarduera, etab-ren berri emango dutela. Ondoren nahi diren galderak egin ahalko zaizkie.

Durangoko A.D. Ourdaybi klubeko kideari sartzeko eskatzen zaio. Behin honek hitz egin ondoren, bere udalerriko beste klubarekin zergaitik bat egin ez duten galdetzen zaie. Honek bere garaian bertako kide izan zirela erantzun zien eta beraiek burutzen dituzten jarduera motarik egiten ez dutelako sortu dutela klub hau jakinarazten du. Ez dago beste galderarik. Jarraian bigarren kluba sartzen da, C.D. IPAR IZARRA NORDIC WALKIN BILBAO eta ondoren hirugarrena, CLUB DE DEPORTES DE INVIERNO Y MONTAÑA AMAROK TXAKURKROS.

#### **BOSGARREN PUNTUA: PRESIDENTETZAREN TXOSTENA**

Victorrek 2018an zehar burutu diren ekintzen berri ematen du. 2018an zehar 5 hitzaldi burutu dira Kirol Etxeko areto nagusian, hirietarako 4 ostegunetan harrera bikainarekin eta bosgarrena larunbatez harrera txikiagoarekin. Hitzaldi hauek gai ezberdinak jorratu dituzte, besteak beste: nibologia, nutrizioa, segurtasuna...

Apirilean Ibilkipirekin hitzartutako ikastaroa eskaini zen. Ibilkipi dagokionez, GORABIDE bere baziodeekin mendi ibilaldiak antolatzeko gurekin harremanetan jarri zela komentatzen da. Bilera bat antolatu zen eta Ibilki gonbidatu genuen, izan ere mendian eta desgaitasunean esperientzia handia dute eta ondoren irteeraren bat antolatu dute.

Federazioko kide batzuk xendazaletasuna eta segurtasunaren gainean FEDME-ak antolatutako jardunaldi ezberdinetan hartu dute parte.

Uztailean, bidezidorrentzat Geo Euskadi bisorea instalatu zen.

Apirilean eta urrian harrera ona izan duten bi ikastaro antolatu ziren borondate oneko gidentzat.

Azaroan bilerak egin ziren klubekin Miribillan parte hartza urriarekin.

Hilabete berean, Aldundiari aurkeztuko zaio escalada bideen ekipatze eta berrekipatze proiektu bat bukatu zuen EBAM-eko arduradunak.

Bukatzeko, federazioa bi saritara izendatua izan dela ematen du jakitera. Alde batetik Bizkaia Kirola Sarian 4 federazio onenen artean izendatua izan zen. Eta bestetik, euskara eta kirol arloan aldundiak sustatzen duen BIKEE proiektuan euskara erabilpen maila onena duen federazio bezala aukeratuak izan gara eta azaroaren 19an merexitako aitortza jasoko dugula gainontzeko federazioekin batera.

#### **SEIGARREN PUNTUA: BGME ETA ESKOLA KIROLA**

Egungo Goi Mendi Eskolako arduraduna J.A. Begiristain dela eta matrikulazio kopuruak gorakada nabarmena izan duela jakinarazten du Ricardok, 316ra iritsi direlarik. Aldi berean, BGME-ko poltsan escaladan eta goi mendian espezializatutako 5 teknikari berri sartu direla adierazten du. Datorren urteari begira, hitzaldiekin jarraituko da, izan ere harrera bikaina izan dute eta gaur egun BGME-ak duen eskaintza areagotzeko ikastaro barriak prestatzen ari dira.

Eskola Kirolari dagokionez, 6653 inguru dira bertan parte hartzen duten ikasleak. Foru Aldundiak Orientazio Liga berri bat sartzeko proiektua onartu du eta hau COBIrekin elkarlanean burutuko dugu. Ubideako aterpetxeak ekintza ezberdinak burutzeko erabiliko dugu. BGME eta Eskola Kirolean egindako lana hobeto ulertzeko, burututako jardueren bi bideoa ikustarazten dira Batzarraren aurrena.

#### **ZAZPIGARREN PUNTUA: BIDEZIDORREN ARLOAN EGINDAKO JARDUEREN TXOSTENA**

Anak Bizkaiko PR-en gaur egungo egoerari buruz hitz egiten du. Gaur egun 16 PR daude berhomologazio prozesuan Durangaldea, Enkarterriak, Ezkerraldea eta Larrabetzu inguruan. Beste

alde batetik, Busturialdea eta Urdaibai inguruan beste 4 bidezidor berhomologatzeko aurreikuspena dago. GR-i dagokionez, 4 berhomologazio egiteko asmoa dago, Bilboko eraztun berdean, Uribe, Ispaster-Laida, Ardoaren eta arrainaren ibilbidea.

2018 xendazaletasun ligari dagokionez, 1083 pertsonak parte hartu duela jakinarazten du Anak, eta etapa baten faltan 4000€ko diru galera dagoela. 2019 urte berriari begira, 12 klub bizkaitarrek parte hartuko duten egutegia erakusten da.

Bukatzeko, eskola kiroleko umeentzat antolaturiko xendazaletasun jardunaldia burutuko dela jakinarazten da.

#### **ZORTZIGARREN PUNTUA: INFORME DE ACTIVIDADES AMBITO CARRERAS POR MONTAÑA.**

Mendi Lasterketen arloan emandako pausuen berri jakinarazten du Fernandok. Bizkaian 52 mendi lasterketa inguru burutzen dira urtean, gehienak Trail modalitatean. 2019an mendi lasterketen liga bat burutuko dugu, eta Trail modalitateko lasterketak antolatzen dituzten klubei (20-30/35km bueltan) gonbidapena luzatuko zaie, horrela beraien lasterketak ligan sartzeko. Bizkaiko Txapelketa ere berreskuratu nahi da.

#### **BEDERATZIGARREN PUNTUA: OLALDE FORMAKUNTZA ESKOLA (UBIDEA).**

Ubideko udalarekin akordio batera iritsi direla jakinarazten du Victorrek. Akordio horri esker, Olalde aterpetxea alokatuko da mendi arloko formakuntza jarduerak burutzeko. Bertan eskola kiroleko neska-mutilekin egonaldiak burutuko dira, klubek mendiarekin zerikusia duten jarduerak burutzeko alokatu ahalko dute eta adinez nagusiekin ikastaro ezberdinak antolatuko dira.

#### **HAMARGARREN PUNTUA: ERREGUAK ETA GALDERAK:**

Bertaratutakoei galderaren bat duten galdetzen zaie.

Gorlizko ordezkariek, desgaitasuna duten pertsonen beste elkartek ez dutela federazioak antolatutako ekintzen berri izaten adierazten du. Gorabide gurekin harremanetan jarri zela adierazten diogu eta xendazaletasun ligaz Apnabiko neska-mutilek parte hartzen dutela jakinarazten diogu, baina ez zaiela informazioa helarazi. Ondo iruditzen zaigu eta elkartek ezberdinei informazioa bidaliko zaie inolako arazorik gabe.

Domingo García Valeriok hartzetan du hitza jarraian, batzuetan federaziotik batzarkide guztientzako izan beharko zen informazioa bidaltzen dela jakinarazteko. Bere hitzetan, informazio hau klubengana heltzen da baina ez kiroalriengana. Baietz erantzuten zaio, batzuetan oker hori burutu dela eta berriz ez gertatzeko saiatuko dira.

Gailurrako ordezkariek bideoak facebooken jarri ahal diren galdetzen du, horrela jendeak ikusi eta partehartzera animatzeko. Kontsulta burutuko dugula jakinarazten diogu, izan ere parte hartzaleen aurpegiak ikusten dira.

Klub guztiei BGME-ko egutegia bidaltzea adosten da.

Beste galderarik eta gairik ez dagoenez, Federazioko Presidenteak bukatutzat emanten du Batzarra, bertaratutakoei eskerrak emanez.



Ainara Aparicio  
BMF Idazkaria

Víctor Vivar  
BMF Presidentea